



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

## **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK ANTONIO DE TRUEBAREN ONDARE ELEMENTUAK ESKURATU DITUZTE, HURA JAIO ZELA 200 URTE BETE ONDOREN**

- **Foru Ganberak 2020. urtean Galdameseko intelektual eta idazleari omenaldia egingo dio, erakusketa handi batekin, Enkarterrietako Museoan.**
- **Eskuz idatzitako jatorrizko gutun bat eta bi argazki zahar erosi dira, zeintzuk Bizkaiko Batzar Nagusietako ondarea osatu duten.**

*(Bilbon, 2019ko abenduaren 23an).*- Kulturaren ikuspuntutik, 2020 Truebaren urtea izango da Bizkaiko Batzar Nagusietan. Galdameseko egile eta intelektual hau eta bere ondarea nagusituko dira Enkarterrietako Museoan antolatuko den erakusketa handi batean, Bizkaiko Batzar Nagusien eskutik. Erakusketa hura 2020. urteko lehenengo hiruhilekoan inauguratuko da, baina intelektual eta uste osoko foruzale honen omenaldia, dagoeneko, hasi egin da. Foru Ganberak Antonio de Truebarekin lotutako hainbat ondare elementu eskuratu ditu, jaio zela 200. urteurrena ospatzeko. Hura bihar ospatuko da, abenduak 24.

Antonio María de Trueba y de la Quintana (Galdames, 1819ko abenduaren 24 – Bilbo, 1889ko martxoaren 10) XIX. mendean gehien nabarmendu zen Bizkaiko intelektualenetariko bat izan zen. Eleberri, haur ipuin eta poesia anitz idatzi zituela, lan etnografiko garrantzitsua burutu zuen, bere kontaketa Bizkaiko istorioak eta tradizioak bilduz. Lehenengo Karlistadatik ihes egiten ari zela, 15 urterekin Madrilera joan zen lanera, non garaiko idazle nagusiekin harremanetan jarri zen.

De Truebak euskal balioak eta foruak irmotasunez defendatu zituen eta hain ospetsu bihurtu zen, ezen 1862. Urtean, Batzar Nagusiek Jaurerriko Kronista eta Artxibozain izendatu zuten. Azken horri esker, Bilbora itzuli ahal izan zuen.

Albia lorategietako estatua, herri harpidetzaz finantzatuta, eta Manuel María de Smith-ek Galdameseko Montellano auzoan egindako monumentua (bertan jaio zen) intelektual honen ospea eta pisuaren hainbat adierazgarri dira. Hil bada ere, pertsonaia honen ospea gure egunetara arte iritsi da eta jaio zela, bi mende igaro ondoren, oraindik ere omendu eta miresten dugu.

Bizkaiko Batzar Nagusiek eskuratu dute Antonio de Truebak Fernando Pedrosari, 1873ko abenduaren 6an eskuz idatziko jatorrizko gutun bat. Bertan, besteak beste, Madrilera helbide berria jakinarazi zion.

Horrez gain, bi argazki erosi dira: horietako bat Adolfo Guiard argazkilari frantsesak 1874. urtean ateratako argazkia da eta bestea, berriz, formatu handikoa da, 1920. urtekoa, non neska bat eta bi mutil Antonio de Truebaren omenez, Bilboko Albia lorategietan, eraikitako monumentuaren aurrean agertzen diren. Argazkiaren oinean zera irakur daiteke: “Alberto Díaz López. Gramatika akatsei buruzko salaketan Lehiaketaren lehen saria”.

Eskuratutako hiru elementu hauek oso interesgarriak dira, ez baita ezagutzen Truebaren jatorrizko artxiboa non dagoen edo bizirik irauten duen, beraz, ezinezkoa da bere bizitzan zehar garaiko politikari eta intelektual ospetsuenei idatzitako gutun ugariak kontsultatzea.

### **Ikerketa eta erakusketa**

2018ko urriaren 15ean, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Galdameseko Udalak lankidetzako protokolo bat sinatu zuten, Antonio de Truebari buruzko ikerketa kritiko bat egiteko. Bertan, honako hauek aritu dira lanean: Joseba Agirreazkuenaga, UPV/EHUko Historia Garaikideko katedraduna; Montserrat Amores, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren irakaslea; Jesús Arrate, XIX. mendeko gudetako ikertzaile aditua; Goio Bañales, Enkarterrietako esparruan aditutako ikertzailea, eta Javier Barrio Marro, Enkarterrietako Museoaren zuzendari teknikoa.

Lan talde honek pertsonaia hau ikertu du politikaren eta literaturaren ikuspuntutik, eta baita ere karlistadek bere bizitzan izandako eragina eta jaioterri zuen Enkarterriekin izandako harreman estua. Ikerketa proiektu hauek egilearen ikuspegi berri bat ekarri dute. Esate baterako, hari dagokion erromantizismotik haratago eginez, pentsalari modernoa eta industriaren defendatzaile sutsua izan zen. Baita kazetari bikaina ere.

Ikerketa proiektua amaitzear dago eta bere emaitzak ezagutzera emango dira lan honen argitalpenaren eta Enkarterrietako Museoan, hurrengo urteko lehenengo hiruhilekoan, inauguratuko den erakusketaren bidez.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA ADQUIEREN ELEMENTOS PATRIMONIALES DE ANTONIO DE TRUEBA CUANDO SE CUMPLEN 200 AÑOS DE SU NACIMIENTO**

- **La Cámara Foral homenajeará en 2020 al intelectual y escritor de Galdames con una gran exposición en el Museo de las Encartaciones.**
- **Se han comprado una carta manuscrita original y dos fotografías antiguas que han pasado a formar parte del patrimonio de las Juntas Generales de Bizkaia.**

*(Bilbao, a 23 de diciembre de 2019).*- Desde el punto de vista cultural, 2020 será el Año de Trueba en las Juntas Generales de Bizkaia. La figura y el legado de este autor e intelectual de Galdames protagonizarán una gran exposición en el Museo de las Encartaciones, que depende de las Juntas Generales de Bizkaia. Esta muestra se inaugurará en el primer trimestre de 2020, pero el homenaje a este intelectual y fuerista convencido ya ha comenzado. La Cámara Foral ha adquirido varios elementos patrimoniales relacionados con Antonio de Trueba para conmemorar el 200 aniversario de su nacimiento, que se celebra mañana, día 24 de diciembre.

Antonio María de Trueba y de la Quintana (Galdames, 24 de diciembre de 1819 – Bilbao, 10 de marzo de 1889) fue uno de los intelectuales vizcaínos más destacados del siglo XIX. Autor de numerosas novelas, cuentos infantiles y obras poéticas, realizó una importante labor etnográfica, recogiendo en sus narraciones historias y tradiciones de Bizkaia. Huyendo de la Primera Guerra Carlista, con 15 años se marchó a trabajar a Madrid, donde tomó contacto con los principales escritores de la época.

De Trueba fue un firme defensor de los valores y los fueros vascos y su prestigio creció de tal manera que en 1862 las Juntas Generales de Bizkaia le nombraron Cronista y Archivero del Señorío, lo que le permitió volver a Bilbao.

La estatua de los jardines de Albia, financiada con suscripción popular, y el monumento realizado por Manuel María de Smith en el barrio de Montellano de Galdames, donde nació, son algunas muestras de la fama y el peso de este intelectual cuya fama perdura tras su muerte y cuya figura aún es objeto de homenaje y admiración 2 siglos después de su nacimiento.

Las Juntas Generales de Bizkaia han adquirido una carta manuscrita original que Antonio de Trueba dirigió a Fernando Pedrosa el 6 de diciembre de 1873 comunicándole, entre otras cosas, su nuevo domicilio en Madrid.

También se han comprado dos fotografías: una de ellas muestra al autor retratado por el fotógrafo francés Adolfo Guiard hacia el año 1874 y la otra es una instantánea de gran formato fechada en 1920 en la que una niña y dos niños posan delante del monumento erigido a Antonio de Trueba en los bilbaínos jardines de Albia. En el pie de la fotografía se puede leer: “Alberto Díaz López. Primer premio en el Concurso de denuncias de faltas gramaticales”.

La adquisición de estos tres elementos resulta de gran interés porque se desconoce el paradero del archivo original de Trueba o si ha sobrevivido, por lo que es imposible consultar las numerosas cartas que escribió a lo largo de su vida, algunas a los políticos e intelectuales más reputados de su tiempo.

### **Investigación y exposición**

El 15 de octubre de 2018 las Juntas Generales de Bizkaia, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Galdames firmaron un protocolo de colaboración para realizar una investigación crítica sobre la figura de Antonio de Trueba en la que han trabajado Joseba Agirreazkuenaga, catedrático de Historia Contemporánea de UPV/EHU; Montserrat Amores, profesora de la Universidad Autónoma de Barcelona; Jesús Arrate, investigador especializado en las guerras del siglo XIX; Goio Bañales, investigador centrado en el ámbito de Las Encartaciones, y Javier Barrio Marro, Director técnico del Museo de Las Encartaciones.

Este grupo de trabajo ha investigado su figura desde el punto de vista político y literario, así como la influencia que tuvieron las guerras carlistas en su vida y la relación profunda que mantuvo con Las Encartaciones, su tierra natal. Estos proyectos de investigación han ofrecido una nueva visión del autor. Por ejemplo, más allá del romanticismo al que se le asocia, fue un pensador moderno y un firme defensor de la industria y también, un buen periodista.

El proyecto de investigación está a punto de terminar y sus resultados se podrán conocer con la publicación de este trabajo y con la exposición que se inaugurará en el primer trimestre del próximo año en el Museo de Las Encartaciones.